



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2016ko otsailaren 26an, 08:00etan, aparteko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. OIHAN ENKANTEA.

Udalbatzak, behar bezala baimendurik, salgai jarri zuen, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian, ondoko oihan aprobetxamendua:

1. lotea, *Armizko*. 741 laritz japoniar, 630 metro kubiko zur eta 111 metro kubiko enbor txiki/egur egiten eta 13.603,87 euro balio dutenak, BEZa kanpo.

2. lotea, *Gorospillaga*. 644 haritz amerikar, 207 metro kubiko zur eta 437 metro kubiko enbor txiki/egur egiten eta 10.341,88 euro balio dutenak, BEZa kanpo.

Iragarkia NAOn argitaratu zen eta ez zuen inork proposamenik aurkeztu jarritako epean.

Indarrean dagoen araudiak jartzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da oihan aprobetxamendua salgai jartzea berriz, prezioa %10 beheratuz. Enkantea eman gabe geratzen bada berriz, hirugarrengo saiakera egingo da, hasierako prezioa %20 beheratuz.

Enkantea arautzeko, 2016ko urtarrilaren 12an onetsitako baldintzen orriak arautuko ditu ere enkante berri horiek.

2. EGUR LOTEAK.

Aho batez erabaki da sutarako egur loteak *Sorginzelaieta* eta *Aritzederraga* parajeetan markatzea, etxeetan entregatzeko. Baldintza hauek onetsi dira: lote 1 (kamioi erdia) edo 2 (kamioi osoa) eskatu ahaliko dira; kamioi osoa eskatzen denean, 2 urteko lotetzat hartuko da (2016 eta 2017); kamioi guztiak pisatuko dira eta pisuaren arabera kobratuko da egurra. Lan hori egiteko aurrekontuak enpresa hauei eskatzea erabaki da: Maderas Santesteban SL, Pako Altzuri SL eta Arpana Formación Forestal SL.

Iaz kamioi osoa eskatu zutenek banaketatik kanpo geldituko dira aurtan.

Eta bertzerik ezean, 08:20ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.